

Joe Sacco

PALESTINA

فلسطين

AMERICAN
BOOK
SARIAREN
IRABAZLEA



ASTIBERRI

Trafikoa?

Kotxeen kea arnasten nabil, mukiak beltz!

Eta zarata?

Etxean musika-aparaturik ez, eta egiptoarren entretenimendua klaxonak dira!

A ze hiria!

EROAAAA!

15 milioi buru, azpian oilorik gabe!

Hainbeste piramide eta faraoitxorekin, akituta nago!

Hau zorabioa!

TAXI!

Atera nazazu hemendik!

KAIRO

Deskantsua behar dut

Solasean hasten naiz hoteleko harrerakoekin

Giroa lasaiagoa da, eta filosofatzen hasten gara

MUSULMANAK ETA MUSULMANAK DAUDE.

Eta Shreef musulman maitemindua da!

Biolinak, arren!

Pragako andre bat!

Bi eguneko hasperen-festa!

Kandelak eta biddiak Nilon barrena!

Kairoko Dorrera igo dira, Jainkoak daki ze preziotan!

Bi egunean 500 libera egiptoar xahutu ditu!

Eta onena: txortan ere ez dute egin!

Ondoan, Taha aritmetikatan hasi da!

ZURE HILEKO SOLDATAREN 1/600! URTE ERDIKO ORDAINA, BI EGUNEAN!

MAITE DUT

AHANZTEKO EDATEN DUZU!

ESAN ZIDAN SENARRA UTZIKO ZUELA NIGATIK! ETA UMEAK!

DIO SENARRA MAITE DUELA ORAIN! 500 LIBERA!

Handwritten notes and scribbles at the bottom left.



Shreef begira dut
Mendebaldekoa naiz

ulertuko dut

NOIZBAIT
EUROPAN
ELKARTUKO NAIZ
BERAREKIN.

Egiptotik ospa
egin nahi du, beraz
bagara bi

Nik Israelerako bisa nahi dut

ISRAEL?

EZ DUT
ARAZORIK
ISRAEL-
DARREKIN

EUROPAREN
ANTZEKOAK
DIRA

**BIRRINDU
EGINGO NUKE
ISRAEL!**

ufala! Ekialde
Ertainean nago!

JUDUEK HAIN TRATU
TXARRA JASO, ETA
ORAIN EURAK DIRA
PALESTINARRAK BERDIN
TRATATZEN DITUZTENAK!

ETA KONTUA
EZ DA HAN BIZI
JABETU ETA
JABETU, HORIXE
NAHI DUTE!

Eta Camp David,
zer?

Sadat Jerusalem?
Beginen besarkadak?

JAI!

Upa! Barkatu!



SADAT OSO GIZON ARGIA ZEN! BAZEKIEN ISRAEL INDARTSUA ZELA ORDUAN, BAINA 50 URTE GEROAGO?

SADATEK PLAN BAT ZEUKAN!

Eta plana azaltzen dit

Nahasi samarra da

Ez ditut erabat ulertzen tankeen taktikak

Bitartean, Shreefek bere rockero gogokoenen zerrenda egiten du:

BARCLAY JAMES HARVEST... PINK FLOYD... GEORGE MICHAEL... DEEP PURPLE...

HARA BESTEA!

GAIA ALDATU DU!

HORRETAZ ONDOTXO DAKI, BAI!

ZENBAT GASTATZEN DUZU LIBURUTAN?

NI POBREA NAIZ, ETA HILEAN 30 LIBERA GASTATZEN DITUT LIBURUTAN!

ETA ZUK 500 LIBERA ANDRE HORRENGAN, BI EGUNEAN!

MAITE NAU,

MAITE? JA! UMEAK UTZIKO AL DITU?

Egun pare bat geroago, bisa lortu eta kairo uzten dut

Suez zeharkatu eta Sinain barrera?

Tanke suntsitu eta erreak nonahi: noiztik daude horrela?

73tik?

67tik?

56tik?

Autobusa maiz geratzen da, eta gidariak kanpora doaz beste gidariekin eta eskoltekin hitz egitera

Baina ni gogotsu nago, eta oso motela

Zinez gogotsu

Hemen nago jada

Hiru aste geroago, dena dut kontrolpean. Adi tipoaren erreakzioari, ze Nablusgo Hiri Zaharrean nago eta biok dakigu ez naizela hemengoa. Ikusi, ikusi...

SALAAM ALEEKUM!

"izan bedi bakea zurekin".

Eta berak erantzun behar du:

ALEEKUM ES-SALAAM!

"Baita zurekin ere".

Harrapatua daukat.

Ikusten: nahi du, gonbidatu eriten nabilen, zer uste duan bere herrialdeaz...

bere herrialdea?

Terik edango al dut?

Tea!

Polito azukretua!

Harrera azukretan neurtzen da!

Baina atsegina naiz...

MAITE DUT TEA.

...gonbidatu perfektua Palestinan.

ZAHAR

BAINA ZER
IRITZI DUZU NIRE
HERRIALDEAZ?

Berriz ere
horrekin, e?

Ea ba...

MUINOAK!

Ez da hori entzun
nahi duena...

OLIBON-
DOAK!

...baina xarma-
garrria naiz...

TERRAZA
FORMAKO
ORTUAK!

...xalo-xaloa...

...eta gainera ez naiz Israel-
go inteligentziako kide.

Baina ohartu ez bada...

OKUPAZIOAREN
KONTU HONEK OSO
LATZA DIRUDI.

Punba!!

Erabateko atxikimendua!

Akabo itzulinguruka
ibiltzeari!

Bete-betean jo dut, antza!

BAI...

BAINA
ZER
EGIN
DEZA-
KEGU?

Hori, ba!

Horixe uste dut nik!

Nire siripatra
osoa diruzue eta...

Ados, agian
adostu, agian
sinpatiarren atzean hitz
hutsak egon daitezke.
Duela urte batzuetako
adibide pertsonal bat jarriko
dut: claudiarekin nengoen berlinen,
Zutela, badakizue, potroetan jartzen zaiena behar
beste guztiok bezala, eta... tipoa ezaguna egiten zaizue?

Klinghoffer



Judu amerikarra

Itsas bidaian zihuan
emaztearekin eta lagunekin...

Genova, Napoli, Alexandria...

Port Saiden egon ostean, Palestina Askatzeko
Fronteak tiro egin zion buruan...

...eta Mediterraneoara jaurti,
gurpil-aulki eta guzti.

Ni
txora
eginda
nengoen
claudiarekin,
hilabeteak
hasperenka, hari
denbora eskainiz,
euroerromantze melenga
bat bizitzeko irrikan.

KOMUNIKABIDE
ESTATUBATUARRAK
ULERTU BEHAR DITUZU:
FOKU PERTSONALAREN
BILA DOAZ. KLINGHOFFER
HIL, ETA HAREN SOSLAI
OSOA EMATEN DIGUTE;
ALARGUN PENATUA, NON
BIZI ZIREN, ZER ZEREAL
GOSALTZEN ZUEN. ETA
AZKENEAN ZURE
BIZILAGUNA EMATEN DU,
ESKAILERA ESKATZEN
DIZUN TIPOA. JABETZEN
ZARA DUTEN
BOTEREAZ?



Ordu
 txikiak
 ziren, edaten
 claudiak, neska erdi
 irakiar hark, Arabiar Filologia
 ikasi zuenak Damaskon, eta hiri
 hartantxe abandonatu zuenak Romeo
 palestinarrak bat, zeharrena baitzuen Jassirrek (2)...
 claudiak, diot, ez zuen ezer interesgarriak esan artean...

Nik bai,
 oso
 gainera:

HORRELAKO
 ERASO
 TERRORISTETAN
 ESTATUBATUARREN BAT
 HILTZEN DUTEN BITARTEAN,
 HAIK EZ DIRA PALESTINARREN
 ARAZOEZ KEZKATUKO. NAHIKOA
 DA AMERIKAR BAT HILTZEA,
 PALESTINARREN DISKURTSO
 OSOA EKLIPSATUTA
 GERATZEKO!


BENO...
 EZ DAKIT
 ASKORIK
 KONTU HORIEI
 BURUZ...

Banekien bazekiela, baina...

Akabo solasaldia!

Patxo bat masailean eta...

Bakarrik etxera.



NOBIO
 PALESTINARRA!
 JA! URDANGA!
 TERRORISTEN
 GROUPIEA!

Ez dela justua?
 Ados, baina ezin
 nuen aho-zapore
 hura kendu:
 terrorismoa da
 palestinarraren
 eguneroko ogia,
 eta neuk ere
 probatua nuen,
 basamortuan
 hegazkinak
 eztandarazi
 zituztenean (3):
 oroitzen?
 Gogoratzen
 Munich, hildako
 atletak, autobusa
 eta aireportuko
 sarraskiak?



Mik
bai.
Burua
borborka daukat
telebistan ikusitako
odoljarioekin... Jakina simpatia
niela galdutako aberragatik eta,
baina zer ziren miretatzat palestinarren
arazoak, Klinghofferrenekin konparatuta,
Jakinda hark X markako zerealak jaten,
zituela eta agian eskailera eskatuko zidala...?

Achille Lauroren kareletik erori zenean,
nire kontzientziaren gainera ere erori zen.

Pa-
lesti-
narrek
hamar-
kadak
zeramatzaten
galbidean,
erbestean, bonbak
eta ostikoak
jasotzen handik eta
hemendik, eta gaueko
albistegietan ere agertzen
ziren, baina ni ez nintzen
gai haien izenak edo aurpegiak
gogoratzeko, ezin nuen ezer
esan haien zerealei buruz. Eta orain
Zisjordaniako tipo honek jendea
aurkeztu nahi dit, bere herritarren
minarekin bat egin dezadan nahi du...

ANDRE HAU:
ZORTZI UME.
SENARRA OSO
ZAHARRA, OSO
GAIXO. GOBERNUAK
EZ EMATEN EZER.



MUTIL
HAU; AITA
KARTZELAN.
ZENBAT DENBORA
KARTZELAN?
LAU URTE!

GIZON HORI:
SEMEA HIL
SOLDADUEK!
EZ DU
ETSIKO?
BOST
AXOLA.

HAU;
SEMEA
KAR-
TZELAN!

HAU; BI SEME
KARTZELAN!

Biktima palestinarrak, ados!

Hona hemen irakurri ditudan mila txostenak, baina bizitza errealean!

Hezur eta mami bihurtuta!

Gertutik eta ia modu pertsonalean!

Baina alde egiteko ordua da!...

Hau da eskerrak eman beharra!

Hunkituta dago!

A ze lorpena!

IDATZIKO DUZU ZERBAIT GUTAZ?

ERAKUTSI DIZUT, IKUSI DUZU!

HITZ EGIN GUTAZ, BAI?


Jakina, jakina!

Banoa koadernoan betetzera!

Zuen sufrimenduaren berri emango diot munduari!

Laster zuen komiki-denda gogokoenean...

Oinez bueltatzen naiz taxi-geltokira.



Bete dut nire zeregina!

Esan dizuet ona naizela honetan!

Jerusalemen, Dave izeneko judu amerikar baten lagun egin naiz. Bere kibbutzetik atera da, Hiri Santuan turismoa egiteko.



GAUEZ BENETAN DA EDERRA, EZTA?

BAI.

ITZELA.

BITXIA EGITEN ZAIT HEMEN EGOTEA, AIENEEN HARRESIAN, NIRE HERENTZIA KULTURALEAN BARNERATZEN.

JOAN DEN OSTIRALEAN SABBATEKO AFARIA IZAN NUEN NEW YORKEKO ERRABINO ORTODOXO BATEKIN.

BAI? ETA ZER MODUZ?

INTERESGARRI.

ITZULERA



EGIA ESAN, EZ DUT HEZIKETA ERLIJIOSORIK IZAN. BAR MITZVAH ERE EZ DUT EGIN.

SAR GAITEZEN HEMENDIK.

GEZIAK DAUDE HARRESIAREN JATORRIZKO MAILARA HELTZEKO.



SAKONA, E?


Oso-oso behera iristen da.

Hiri honek eragiten dituen sentimenduen antzera, oso zaila da barru-barrukoa ikustea.

"Datorren urtean, Jerusalemen": horratx mundu osoko juduek Pessah garaian diotena, eta honatx bera orain; judu bat Sionen, Jaungoikoak herri aukeratuari agindutako lurraldean.



OINPEAN JARTZEN DITUZUEN LUR GUZTIAK EMANGO DIZKIZUET, MOISESI AGINDU NION LEGEZ. BASAMORTUTIK ETA LIBANOTIK HASI, ETA EUFRATES IBAI HANDIRAINO, HITITEN LURRALDERAINO, ETA...




Eta 1917an -juduek bi mila urte igaro ondoren diasporan-britainiarrek Jaunaren agindua bete zuten. Potentzia handiek egundoko gerraontziak zeuzkaten, eta idazluma eta tinta txinatar mordo ere bai. Lord Balfourrek adierazpena sinatu zuen, eta sionistek britainiarren konpromisoa lortu zuten; abian zen juduentzako aberria Palestinan.




HERRIRIK GABEKO LUR BAT, LURRIK GABEKO HERRI BATENTZAT!





Baina gauzak ez ziren eslogan sionista hori bezain sinpleak. Arabiar ugari bizi ziren Palestinan; 1917an, arabiarrek juduak baino hamar aldiz gehiago ziren. Baina badakizue nola diren matematikak: ekuazioak ez du beti funtzionatzen.



ZUZENA ZEIN OKERRA IZAN, ONA ALA TXARRA IZAN, SIONISMOA ASPALDIKO TRADIZIOETAN, ORAINGO BEHARRIZANETAN ETA ETORKIZUNEKO ESPERANTZETAN SUSTRAITUTA DAGO, ETA HORI ASKOZ GARRANTZITSUAGOA DA LUR ZAHER HARTAN BIZI DIREN 700.000 ARABIARREN GOGOAK ETA AURREIRITZIAK BAINO.

Eta bide batez:

GURE PROPOSAMENAK EZ DU JASOTZEN HERRIALDE HORRETAKO BIZTANLEEN NAHIA KONTSULTATZEKO AUKERARIK.



Kito! Une historiko hartatik datoz oraingo errefuxiatuak... Palestinarrak gainbehera joan dira geroztik, eta israeldarrek gailur altuetaraino egin dute hegan. Nork uka dezake hori?



Zatozte eta ikusi, neska-mutil hauek bezala: Nazioarteko Ikasleen Elkargokoak dira!
 Aterpetxeak holakoz gairnezka daude!
 Holandarrak, australiarrak, hegoafrikarrak... denak kibbutzetarako bidean, komunan bizitzera eta laranjak jasotzera Galilean edo Negeven...

...egonaldia bukatu duten batzuek mozturuzko kontuak trukatzen dituzte, batez ere ingelesek: haiek ez dute "opor" hitza erabiliko, ez badira gauero botaka aritu. Diotenez, ilunabarretik aurrera ez dago ezer egitekorik landetxe horietan, vodka edateaz aparte...

Baina Mary Ann argentinarra ez da zurruterako etorri. Israelen aldeko Boluntarioek antolatutako programa bukatu berri du...

...ISRAELGO ARMADAREKIN, ESAN NAHI DUZU? TANKEAK GARBITZEN?

ZORAGARRIA IRUDITZEN ZAIT ISRAELGO GAZTEEK ABERRIAREKIKO ETA BEREN IDENTITATEAREKIKO DUTEN LOTURA... GAUZA EDERRA DELA USTE DUT.

ETA ZU NONGOA ZARA?



EZ DA HORI BAKARRIK. HEMENGO KULTURA ULERTZEN LAGUNDU DIT.

ISRAELEK ARMADA INDARTSUA BEHAR DU. ETSAIZ INGU-RATUTA DAGO.



Davek pentsatu egin behar du...
 Asteburu bat Hirri Santuan, eta dagoeneko ez dago ziur...



ISRAEL ETA ESTATU BATUAK.

EGIAZ, ESTATUBATUARRA NAIZ.

BAINA IRUDITZEN ZAIT HAU ERE BADELA NIRE ETXEA.

NIRE ETXEA DA! NIRE ETXEA DA! NIRE ETXEA DA!

Eta hala da. Nahi badu, Israelgo herritartasun osoa lor dezake. Itzuleraren legea da: edonongo juduak "itzul" daitezke hona... Moldaviatik, Etiopiatik, zeelanda Berriko Christchurch hiritik...

Aste batzuk geroago, Jabaliako errefuxiatuen eremuan, agure palestinar batek kontatu zidan nola utzi zuen etxea 1948an, Israelek independentsia aldarrikatu eta armada arabiarrek lurraldea inbaditu zutenean...

JUDUAK ETORRI ZIREN, HERRIA OKUPATU, ETA ATZEAN GERATUTAKO GUZTIAK ATXILOTU ZITUZTEN, TARTEAN GURE AITA, ZAHARRA ZEN ETA EZIN ZEN MUGITU...

LAU EGUN EMAN NITUEN EMAZTEAREKIN OINEZ. HAURDUN ZEGOEN...

EGIPTOKO ARMADAK EZ GINTUEN KAMIOIETAN HARTU NAHI IZAN...

JUDUAK BONBAK JAURTITZEN... INURRIAK ERE ATZETIK GENITUEN...

ZORIGAIZ-TOKO EGUNA, NIRE LURRA UTZI NUENEKOA.

Handik urte gutxira bueltatu zen. Buelatu edo.

Israelgo agintarien baimena lortu zuen.

Ordu batzuez Gazako zerrendatik irten ahal izan zen...

Orain Israel den lurraldera igaro ahal izan zen, jaioterra bisitatzera...

FAMILIA ERE ERAMAN NUEN NIRE HERRIA IKUSTERA...

NIRE ETXEA ETA ESKOLA ZEUDEN TOKIRA...

BATZUK PARALIZATUTA GERATZEN DIRA BUELTATZEKO AUKERA DUTENEAN.

DEN-DENA SUNTSITU ZUTEN.

EZ DAGO GU HAN BIZI IZANAREN INOLAKO ARRASTORIK.

Jerusalem armaz jositako hiria da. Sorbaldetan doazen fusilen ratioa inon ikusi dudán handiena da hemen, baina, sikiera, israeldarrek emakumeak dituzte tropetan, eta hori, ni bezalako esteta batentzat, bada zerbait. Nazioarteko jet setean banengo eta holako gauzak konparatzeko aukera (edo agindua) banu, neska katxarroen munduko sailkapenaren gorenean jarriko nituzke israeldarrak... Eta uniformeak badaramate -oliba koloreko jertseak, batez ere-, paregabeak dira...

Moizean behin, ezin eutsi eta Jaffako errepidera joaten naiz, badakizue, eguna libre duten neskatoei begiratzera, eta neure buruari gogoraraztera zahartzén ari naizela...

MUSLEAREN BEGIA

Eta zer esan mutilei buruz?

Ooo la la!!

Begiratu honi, adibidez!

Atsedean hartzen ari da Hiri Zaharreko harresietan...

...anexionatutako arabiar lurrei begira...

...Marlbororen iragarki batean bezala...

Neuk ere izterrak estutu behar!!

EI!

AMERIKARRA ZARA?

BAI, ZU!

SANDWICH ZATI BAT NAHI?



UM... ZUEK NONGOAK ZARETE, MUTILOK?

Enebadatxue!!

Arraioa!

Urduri al dago?

Amari ere adurra dario eta!

Ala ergel totala da?

Lepoa egingo nuke haren Fujicolor karreteak ez duela sekula holako mutil puskarik ikusi!

Edonola ere, soldaduak patxadaz hartzen du...

ISRAEL-GOAK GARA.

Harrapatu al du orain?

Mesedez eta faborez!

Zoazte harira behingoz...

IEPI, GAZTEOK!

ZENBAT URTE DITUZUE, MUTILOK? EZ ZENUKETE ERRE BEHAR.

EGON!

TXARRA DA OSASUNERAKO. MINBIZIA ERAGINGO DIZUE.

EGON!

Beranduegi!

Amatxo eta aitaxo etorrita, akabo esperantzak...

EI, JENDE
PILOA DAGO HOR
BEHEAN...

ZERBAIT
GERTATZEN
ARI AL DA?

Zerbaít esan nahi nuen...
goiz osoa pasatu baitut gaiari
buruz irakurtzen:

Silwan da,
guztiz herri
arabiarrak.
Duela astebete,
kolono juduek
palestinarren
hainbat etxe
hustu zituzten,
eurentzat
hartu, dena
alanbrez
inguratu,
Daviden Izarra
jarri... eta
beren
Uziakin (4)
eta fiskal
nagusiaren
oniritziarekin,
ea nor hasten
zaien
eztabaidan!

AII, HEMEN
BETI GERTATZEN
DA ZERBAIT.

Demokrazia!

Manifestazio bat!

Kontrammanifestazio bat!


Paisaia ederra, bilera-eskubidearen
alde gauden txoriburuontzat...

Adierazpen askatasunaren jonkia ere banaitz...

Eta hau Israel da!

(Beno, lurralde anexionatuak, baina utz dezagun horri)
"Ekialde Ertaineko
demokrazia bakarra" da!

Eta hona hemen
asentamenduen gaiari
buruzko bi bandoak!



Arratsalde honetan bildutako espektro politikoko osotik, jendetsuena, alde handiz, Bakea orain taldearena da. Autobusez etorri dira Israelgo bazter guztietatik, elkartasuna adieraztera Silwango palestinarrei. Haietako batengana noa...

AGIAN KOLONO HAU EK LEGEAREN ARABERA JOKATU DUTE, EZ DAKIT, BAINA KONTUA EZ DA HORI.

HAU PROBOKAZIO HUTSA DA, ARGI DAGO...

...JUSTU BAKE ELKARRIZKETAK HASI BERRI DIRENEAN...

Berak dio, noski, Israeliek ospa egin behar lukeela Lurralde Okupatuetatik, estatu bat sortu...

...ETA HORI EZ BADA GERTATZEN DATOZEN 10 URTEOTAN HURRENGO 20 EDO 30etan IZANGO DA...

Bitartean, nagusi egia ez diren gizon israeldar osasuntsu gehienek bezala, urtean zenbait aste egin behar ditu erreserban; Zisjordanian lanean...

Demokrazia iz inguratu jarraitzen dugu...

Egun ederra, Bakea orain taldearen manifa baketsu baterako...

Eta, bide batez, utz dezagun gauza bat argi:

ENTZUN: NI SIONISTA NAIZ ETA ISRAEL SENDO BAT NAHI DUT.

HAIN ZUZEN ERE, INDARTSUAK GARELAKO EZ GAITUZTE JAURTI ITSASORA ARABIARREK...

ETA ORAIN NEGOZIATZEKO PREST DAUDE.

NOLA UZTARTZEN DUZU ZURE IKUSPEGI POLITIKOA, OKUPAZIO-ARMADAKO KIDE IZATEAREKIN?

EZAGUTZEN DUT ARMADARI UKO EGITEAGATIK ESPETXERA JOAN DEN JENDEA. BAINA ONDO DAGO NI BEZALAKO JENDEA EGOTEA HOR.

ARABIARRAK EZ DIRA JUSTIZIAZ TRATATZEN LURRALDE OKUPATUETAN. BAINA NIK ABISUETAN BADUT SOLDADU ERO BATEK ZERBAIT ILEGALKI EGIN DUELA, GURPILA MARTXAN JARTZEN DA...

ARAZOETAN SAR DAITEKE, KANPORATU EGIN DEZAKETE... ZIGOR SOLDATATIK BIZI NAHI DUEN NORBAI TENTZAT.



Handik gutxira,
demokraziarenak egin du...

Jendea etxera bueltatzen da, euren
buruak telebistan ikustera.

Ume palestinarrik Bakea Orain
taldeko manifestari berbagoxoen
artera doaz, kartelak eskatzera.

Muinoan gora noala, oihuak
entzuten hasten naiz...

Minimanifestazio bat!

50 lagun inguru

STOP
SETTLEMENTS
NEGOTIATE
NOW

הוציאו את ההתנחלויות
P ALL SETTLEMENTS

הוצא ותרו לשלום

ume batzuk, andre batzuk

Metro batzuk egiten dituzte...

...zoroen moduan garrasika...

...dezibelio gehiago sortuz minutu pare batean,
besteek arratsalde osoan baino...

Alegia: oihuka ari dira, bizia jokoan
balute bezala!

ZEDRONGO HARANA



EPA!

KAIXO!

JUDUA?
JUDUA?

NI? EZ,
EZ NAIZ
JUDUA.

ETORRI?
ETORRI?

HORTIK
BEHERA?
ADARRA
JOTZEN, ALA?

ZUK HITZ
EGIN
JUDUZ?

POLITA?
POLITA?

ZUK
HITZ EGIN
JUDUZ?

EZ!

EZ!
BENO, HITZ
BATZUK BAI!
SHALOM, KIBBUTZ,
KNESSET.

BAI!
ETORRI!
ETORRI!

Mutiko pottoloak dio Silwangoa dela. Kolonoek kanporatu egin dituztela bera eta bere familia.

ZUEN ETXERA JOAN ZIREN? ZER ESAN ZUTEN?

NON BIZI ZARA ORAIN?

HONEKIN.

JUDUAK!

IRTEN! IRTEN! OSPA!

Jo izan balute bezala mugitzen da.

ETORRI! ETORRI!

ETXEA!

Asentamendu bat.

JUDUAK!

AIZUE, HAU APUR BAT LOKAZTUTA DAGO.



Gero...

Txoriak zuhaitzean!

Mutikoak harriak hartzen hasten dira!

Burua txikitu nahi diote txoriren bati!

Txoriek ihes egiten dute, baina mutikoak ohartu ez!

Eta ekinean jarraitzen dute!

Harriak hartu!

Jaurti!

Hartu!

Jaurti!

Hartu!

Jaurti!

Hartu!

Jaurti!



Jatorrak dira, baina aspertzen hasia naiz. Agurtzen hasten naiz eta...

DIRUA!

DIRUA?

HAMAR!

HAMAR SHEKEL? USTE NUEN LAGUNAK GINELA!



GUK ERAKUTSI ZURI! GUK ERAKUTSI ZURI!

BAINA EZ DUZUE DIRURIK AIPATU! BEGIRA: HIRU ETA ERDI, HEMEN.

EZ! EZ!



Ez dute hartu nahi! Ukabila ixten didate, txanponak barruan daudela...

HEMEN! HEMEN!

HAMAR! BOST NI! BOST BERA!

BAINA EZ DA JUSTUA...

Txanpon gehiago ematen dizkiet...

Libre uzten naute...

GU GAIZ-TOAK?

GU GAIZ-TOAK?

Uste duzue nik gaizto deitu diedala?

Edo errieta egin diedala?

Terrorista txiki horiei?

Artilleria-erakustaldi horren ostean?

UME ALUAK!
LODI NAZKANTE HORI,
BATEZ ERE! ZIUR EZ
ZELA SILWANGOA ERE!
ZIUR HORRETAN ERE
ENGAINATU NAUELA!
MUKITSU USTELA!
URDEAK... KABENNO

Jerusalemgo Hiri Zaharrera itzulita,
dendari palestinarren artekin noa...

Amorrazazi egiten naute...

Begi handi triste horiekin...

Beren patrika
hutsekin...

Ostiko bana emango nieke...

BOSTE-
KOA!
BOSTE-
KOA!

Ezta pentsatu ere,
moxolo, kakazahar
hori kairon ikasi nuen...

IKUSTEN!
EZ DU
BAKERIK
NAHI!